

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Herio arratsean

Asagoko mendi horixka eta erreka gorriez gaindiko herri urrun hartan, eguzkia itsaso eta herri bihurtzen baina ilargia berritzen ez zeneko hartan, ozenki esan zuten egunkariak. Ozenki esan zuten ezen beharrezkoa zela enpresa nuklear hura, argindarra ekoizteko. Balizko arriskuak arrisku, babestu egin behar zela hura. Saihestezinak zirela energia-iturriak oro, baita perilosena ere. Zeren, argindarrik gabe, ekonomiaren motora itota ibiliko baitzen, ibiltzekotan.

Berrehun sumendi eta zazpi mila uhartetako herri urrun hartan, irratiek esan zuten ezen hain arriskutsua ere ez zela zentral nuklear hura. Alegia, ingeniariak bazutela buruan zerbait burutsua, gai gris deitzen zaiena. Beraz, arriskua bazegoen ere, kontrolpekoa zela hura.

Kanforrondo- eta magnolia-basoetako herri urrun hartan, telebistek esan zuten ezen lurrikaren aurkako hormatzarrak zituela eraikinak. Ez zutela botako haizeteek. Ez zutela eraitsiko euriteek. Lotozko sare digitalek esan zuten ez, fabrika hura zen birrin-ezina, suntsiezina.

BAGA, BIGA, HIGA...

Bat-batean, Apokalipsiaren zaldi gorriaren etorrera ikusi zuten denek, eguzkiaren azken labandak ortzia orbaindu zuenean. Abantaila hartuta hurbildu zen Herio: trostan hasieran eta, ondoren, asapala bizian.

Sortalde urruneko herri hartara, ezpata eskuan zuela hurbildu zen balbe gaiztoa. Zamaria zakarki akuilatuz, ezinezko abiadura eroa eskatuta. Bitsak eta izerdiak xigortu zizkion zaldun krudelak abere ederrari... Kontatzen dutenez, hegoak ere kiskali omen zizkion lau hankakoari, bortizkeria neurgaitzean.

Eta, estropuz egin zuen zaldi gorriak ustekabea. Gerriak hautsi zitzaizkion zal-



DANI BLANCO

dunari, eguzkiak kiskalitako buztinetan. Eskuan zeraman ezpatak ihes egin eta, hara non jo zuen Herioren aihotzak zentraleko paretatzarra; birrin-ezina zena, plutonioaren kartzela izateko ingeniariak gai gris delakoarekin bikainki eta ezin hobeki diseinatu zena.

Zulo txiki-txiki bat eragin zuen metal ondo galdatu eta hobeto suberaturakoak porlan trinkotuzko eta sendotuzko hesian. Horrela geratuko zen dena, baldin eta barrutik indar egin izan ez balu patu beroak. Zuloa zena, arrakala bihurtu zen. Arrakala, zintzur. Zintzurra, leize eta amil-degi.

Askatu egin zen munstroa. Bost itsaso eta lau haizeetara barreiatu zen haren pozoia.

IKIMILIKILIKLIK

Egunak pasatu dira harrez gero. Ez asko ere, egia esan. Egunkariak eman dute ezbeharraren albiste. Negarra eragin digute irratitik nahiz telebistatik. Sare digitalak hasi dira plazaratzen segurtasunari buruzko dudak. Lehenago, txoroek baizik planteatzen ez zituztenak. Eztabaida piztu da berriz ere.

Albiste eta albiste bitartean, amona xaharra ikusten dut lehertu zen fabrikaren inguruko hondakinetan. Sigi-saga dabil haien artean, plastikozko poltsa bat darama eskuan. Arropa esekitzeko kakoa aurkitu du zaborraren azpian. Jantzita duenaz aparteko ezer ez duen arren, bildu egin du.

Hots, hots... bizioin oinok. Eguzkia itzaila, elur-zirina ari du. Erori eta mina hartu du amona horrek. Zauritu egin da, baina ebakiari ez dario odolirik. Gatzatua du. Arnasa bezala. Esperantza bezala. Urratsa bezala.

Ingurura begiratuta, ezer ez du ezagutzen, errekonozitzen. Hondakin handi xamar batera hurbildu eta kakotik eskegi du. Bere burua. ■

Albiste eta albiste bitartean,
amona xaharra ikusten dut lehertu
zen fabrikaren inguruko hondakinetan.

sigi-saga dabil haien artean,
plastikozko poltsa bat darama
eskuan. Arropa esekitzeko kakoa
aurkitu du zaborraren azpian



irudia:

Antton Olariaga